

ERABAKIA, 2016ko URRIAREN 26koa, GRADUONDOKO IKASKETEN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, UKRAINA, GEORGIA, TXINA ETA ERRUSIAR FEDERAKUNDEKO UNIBERTSITATEETAN EGONALDIAK EGITEKO ERASMUS+ PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN UPV/EHUko IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK AUKERATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK ONARTZEN DITUENA.

Joan den ekainean, Hezkuntza Nazioartekotzeko Espainiako Zerbitzuak (SEPIE) argitara eman zuen 2016ko deialdian Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde kideen arteko mugikortasunerako finantzabidea lortu duten unibertsitateen zerrenda.

Deialdi horretan, UPV/EHUk finantzabidea lortu zuen, irakasleek eta ikertzaileek, 2016-17 eta 2017-18 ikasturteetan, egonaldiak egin ditzaten herrialde hauetan: Ukraina, Georgia, Txina eta Errusiar Federakundea.

Beraz, UPV/EHUk Ukrainako, Georgiako, Txinako eta Errusiar Federakundeko unibertsitateetan egonaldiak egingo dituzten irakasleak eta ikertzaileak hautatu behar ditu orain.

Azaldutakoa kontuan hartuta, UPV/EHUko errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko Erabakian (EHAA, 31. zk., 2013ko otsailaren 13a) eskuordetutako eskumenez baliatuta, Erasmus+ programako herrialdeen eta herrialde kideen arteko mugikortasunerako Erasmus+ proiektua kudeatzeko UPV/EHUk eta SEPIEk izenpetutako hitzarmenean ezarritako baldintzak aintzat hartuta, eta beharrezkoa den aurrekontua eskura edukita, honako Erabaki hau hartu dut.

ERABAKIA

Lehenena.- Ukrainako, Georgiako, Txinako eta Errusiar Federakundeko unibertsitateetan egonaldiak egiteko Erasmus+ programan parte hartuko duten UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak hautatzeko deialdiaren oinarriak onartzea eta argitaratzea.

Bigarrenena.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal zaio Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; hori guztia, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera (107. art. eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi

errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1a eta 46.1 artikulua).

Donostia, 2016ko urriaren 26an.

Sin.: Nekane Balluerka Lasa

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordea

OINARRIAK:

UKRAINAKO, GEORGIAKO, TXINAKO ETA ERRUSIAR FEDERAKUNDEKO UNIBERTSITATEETAN EGONALDIAK EGITEKO ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMAN PARTE HARTUKO DUTEN UPV/EHU-KO IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK HAUTATZEKO DEIALDIA.

1.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen bidez, Ukrainako, Georgiako, Txinako eta Errusiar Federakundeko unibertsitateetan egonaldiak egiteko Erasmus+ mugikortasun programan parte hartuko duten UPV/EHUko irakasleak eta ikertzaileak hautatu nahi dira.

2.- Parte hartuko duten unibertsitateak.

Deialdi honetan aurreikusitako mugikortasunen bidez UPV/EHUtik honako unibertsitate hauetara joan daiteke:

- UKRAINA

- National Technical University of Ukraine
- National Aerospace University
- National Aviation University
- Odessa National Polytechnic University
- Zhytomyr State Technological University

- GEORGIA

- Georgian Technical University
- Georgian Aviation University
- Sokhumi State University

- TXINA

- Tianjin University of Science and Technology

- ERRUSIAR FEDERAKUNDEA

- Lomonósov Moscow State University
- Peoples' Friendship University of Russia

3.- Mugikortasun motak.

Mugikortasunen xedea hauetakoren bat izan daiteke: irakaskuntza edo prestakuntza.

3.1.- Irakaskuntzarako mugikortasuna

Irakaskuntza eman da graduako edo graduondoko titulu ofizial bat eskuratzeko ikasketa programa batean, xede unibertsitatean.

Ekintza honek honako helburu hauek ditu:

- Irakaskuntza metodologiaren gaineko esperientzien trukea sustatzea.
- Mugikortasun ekintzetan parte hartu ezin duten ikasleei aukera bat ematea beste herrialde batzuetako irakaskuntza ezagutzak eskuratzeko eta, hala behar bada, eskola magistralak/praktikak atzerriko hizkuntza batean jasotzeko.

Mugikortasun honetan, beharrezkoa izango da, gutxienez, zortzi irakastordu ematea (baita egonaldia astebetetik beherakoa denean ere), eta, asteen, gutxienez, hiru saio.

3.2.- Prestakuntzarako mugikortasuna

Xede unibertsitatean jaso beharreko prestakuntza baliagarria izango da jakintza eremu berean lanean ari diren edo lanpostu/kargu bera duten kideak ezagutzeko eta haiengandik ikasteko.

Ekintza honek honako helburu hauek ditu:

- Jardunbide egokiak betetzea, xede unibertsitatearen lana egiteko eta antolatze moduari dagokionez.
- Unibertsitate bazkideen arteko harremanak indartzea.

Modalitate honen barruan ez dago sartuta biltzarretara joatea.

4.- Eskainitako plazak.

Deialdi honen xedea irakasleak eta ikertzaileak hautatzea da, aukeran dauden plaza hauek hartzeko:

NONDIK	NONGO UNIBERTSITATEETARA	PLAZEN KOPURUA
UPV/EHU (lehentasuna izango du Bilboko Ingeniaritza Fakultateko eta Letren Fakultateko IIPak)	Ukraina	3
UPV/EHU (lehentasuna izango du Bilboko Ingeniaritza Fakultateko eta Letren Fakultateko IIPak)	Georgia	2
UPV/EHU (lehentasuna izango du Ingeniaritza Mekanikoko Unibertsitate Masterreko IIPak)	Txina (Tianjin University of Science and Technology-ko Ingeniaritza Mekanikoko masterra)	1

UPV/EHU (<i>lehentasuna izango dute Letren Fakultateko Filologiako eta Itzulpengintza eta Interpretazioko II Pak</i>)	Errusiar Federakundea -Lomonosov Moscow State University: Filologia Fakultatea eta Atzerriko Hizkuntzen Fakultatea -Peoples' Friendship University of Russia: Filologia Fakultatea	4
---	--	---

5.- Erasmus+ beken ezaugarriak.

Erasmus+ programak, gehienez ere, egonaldiko bost egun eta bi bidai egun finantzatu ditu; horri bidaiaren gastuen kopurua gehituko zaio, distantziaren arabera.

ABIAPUNTUKO UNIBERTSITATEA	NORA	Eguneko zenbatekoa, 5 egunera arte, gehienez.	Bidaia gastuetarako zenbatekoa	Gutxieneko/gehieneko egonaldia
UPV/EHU	Ukraina	160 €/eguna	360 €	Gutxienekoa: 5 eguneko egonaldia + 2 eguneko bidaia (1)(2)
UPV/EHU	Georgia	160 €/eguna	530 €	Gutxienekoa: 5 eguneko egonaldia + 2 eguneko bidaia (1)(2)
UPV/EHU	Txina	160 €/eguna	1100 €	Gutxienekoa: 5 eguneko egonaldia + 2 eguneko bidaia (1)(2)
UPV/EHU	Errusiar Federakundea	160 €/eguna	530 €	Gutxienekoa: 5 eguneko egonaldia + 2 eguneko bidaia (1)(2)

- (1) Bidaiaren bi egunek, laguntza jasotzeko kontuan har daitezten, xede unibertsitatean egingo den bost eguneko egonaldiaren aurrekoak edo ondorengoak izan beharko dute.
- (2) Baimendutako gutxienekoa baino egonaldi luzeagoa egin nahi izanez gero, Erasmus+ laguntza 5 eguneko egonaldiarentzat izango da, gehienez; egonaldiaren gainerako zatia, beraz, laguntzarik gabekoa edo "zero beka" moduan izango da.

6.- Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzaren laguntza osagarria.

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordetzak osatuko du, xede erakundera joan-etorriko garraioaren gastua ordaintzeko laguntza, baldin eta gastuaren zenbatekoak, justifikatutako arrazoiengatik, EBk emandako gehienekoa gainditzen badu.

7.- Mugikortasuna egiteko aldia.

Mugikortasuna 2017eko martxoaren 1aren eta 2017ko abenduren 20aren artean egin beharko da.

8.- Parte hartzeko baldintzak.

Interesdunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) UPV/EHUren (edo haren zentro atxikiaren) nominan egotea, bai eskaera egiteko unean, bai mugikortasuna egiteko unean.
- b) UPV/EHUren eta xede unibertsitatearen oniritzia edukitzea, irakaskuntza edo prestakuntzarako behin-behineko mugikortasun akordioan jasotako lan egitasmoarako (Mobility Agreement for Teaching- I. eranskina, edo Mobility Agreement for Training – II. eranskina)
- c) Interesdunak lana egiten duen saileko edo ikastegiko arduradunak idatzitako aldeko txostena edukitzea.
- d) Xede unibertsitatean lan egitasmoa gauzatzeko erabiliko den hizkuntzan maila ona edukitzea.

9.- Eskaera.

Eskaerak banakakoak izango dira, eta norako bakar baterako.

Eskaera bakoitza UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoaren webgunean online bete beharko da:

<http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-herrialde-kideak>

Osatu gabeko eskaerak ez dira aintzat hartuko.

Eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek entregatu beharko dira:

1. Behin-behineko lan egitasmoa (Mobility Agreement for Teaching- I. eranskinean dago eredua, edo Mobility Agreement for Training – II. eranskinean dago eredua, **SINATU GABE**).

2. Xede unibertsitateko homologoaren txostena, non behin-behineko mugikortasun akordioan jasotako lan egitasmoaren proposamena onartuko den (Eredua III. eranskinean dago).
3. Eskatzailearen curriculum vitae, ingelesez.
4. Interesdunak lana egiten duen saileko edo ikastegiko arduradunak idatzi eta sinatutako aldeko txostena.
5. Xede unibertsitatean erabiliko den hizkuntzaren ezagutza frogatzen duen ziurtagiria.

10.- Eskaerak aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea 2016ko azaroaren 2an hasi, eta 2017ko otsailaren 10ean amaituko da.

11.- Balorazio batzordea.

Jasotako eskaerak ebaluatzeko batzordea honako pertsona hauek osatuko dute: Nazioarteko Mugikortasuneko zuzendariak, Nazioarteko Harremanetako Zerbitzuko buruak eta UPV/EHUko teknikari batek, batzordeko idazkari lanak egingo dituenak.

UPV/EHUK eskatzaileen xede unibertsitatei jasotako hautagai bakoitzaren ebaluazioa egiteko eskatuko die.

12.- Balorazio irizpideak.

Parte hartzaileak honako irizpide hauen arabera hautatuko dira:

1. Behin-behineko mugikortasun akordioan proposatutako lan egitasmoaren eta hautagaien balorazioa: 1etik 10era.
2. Xede unibertsitateak hautagaiari buruz egindako balorazioa: 1etik 5era.

Eskatzaile bakoitzak, gutxienez, 11 puntu lortu beharko ditu, plazaren bat eskuratzeko hautagaia izan ahal izateko.

Hautaketa prozesuaren hasieratik, lehentasuna emango zaie Erasmus+ programaren testuinguruan mugikortasunik egin ez duten pertsonari, mugikortasunaren bat egin duten pertsonetara. Lehendik mugikortasunak egin dituzten pertsonen artean berdinketa emanez gero, aurreko urteetan Erasmus mugikortasun gutxiago egin dituztenak lehenetsiko dira.

13.- Erabakia.

Graduondoko Ikasketen eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak, batzordeak egindako lehenespena aintzat hartuta, onartutako mugikortasunen zerrenda eta erreserben zerrenda argitaratzeko agindua emango du.

Nolanahi ere, interesdun bakoitzari dagokion jakinarazpena bidaliko zaio, eskaeran adierazi duen helbidera, eta 10 egun balioduneko epea ezarriko da, mugikortasuna onartzeko edo hari uko egiteko.

14.- Erasmus+ diru laguntzen hitzarmena.

Parte hartzeko aukeratuak izan diren pertsonak, mugikortasuna egin aurretik, diru laguntzen hitzarmen bat sinatu beharko dute. Hitzarmen horretan, langileentzako Erasmus+ laguntzaren onuradun gisa hautagaiek bere gain hartu beharreko eskubideak eta betebeharrak zehaztuko dira.

15.- Betebeharrak, aseguruari eta gizarte segurantzari dagokionez.

Parte hartzaileek aseguru bat eduki beharko dute, istripuak, gastu medikoak, lekualdatze medikoa, eta aberriratzeari estaltzeko. Bidaia kontratatzean, egoera horiek estaltzen dituen aseguru bat kontratatu behar da, nahitaez.

Horrez gain, bidaia egin aurretik, UPV/EHUko Gizarte Segurantzako unitateari bidaia-aren data zehatzen berri eman beharko diote, "Lekualdatutako UPV/EHUko pertsonentzako gidan" ezarritakoa errespetatuz.

16.- Bidaia kontratatzea.

Bidaia nahitaez kontratu beharko da UPV/EHUko Zerbitzu Orokorren webgunean enpresa esleipendun gisa ageri den bidaia agentzia batean.

<http://www.ehu.eus/es/web/kontratazioa/bidaia-agentzia>

Nazioarteko lekualdaketetarako nahitaezkoa da 3 agentzian aurrekontua eskatzea, Zerbitzu Orokorretan horretarako emandako inprimakiaren bidez. Azkarren erantzuten duena edo baldintza onenak eskaintzen dituen hautatuko da.

17.- Onuradunen betebeharrak.

Mugikortasuna egiteko hautatutako pertsonak lekualdaketarako lizentzia bat izapidetu beharko dute, UPV/EHUren araudi orokorraren arabera.

Deialdian ezarritako oinarriak eta/edo epeak ez betetzea edo datuak ezkutatu, aldatu edo manipulatzeari emandako laguntza ezeztatze edo eteteko arrazoia izan daitezke, eta jasotako kopuruak itzuli beharko dira.

Nazioarteko Harremanetarako Bulegoak beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eska diezaieke onuradunei eta xede unibertsitateei, egonaldia deialdiaren xedearen funtsarekin bat etorrita egin dela egiaztatzeko.

18. Parte hartzen duten unibertsitateetan harrera leku bat bilatzeko kontaktua

Parte hartzeko interesa dutenak harremanetan jar daitezke UPV/EHUko Nazioarteko Harremanetarako Bulegoarekin, pc.international@ehu.eus posta helbidera idatzita.

UPV/EHUK eta parte hartzen duten unibertsitateek lankidetzan jarduteko ahalegina egingo dute, interesdunen homologoak bilatze aldera (xede unibertsitateko kideak, interesdunen antzeko jakintza eremuetan edo lanpostuetan dihardutenak).

Parte hartzen duten unibertsitateetako homologoekin harremanetan jartzeko laguntza behar duten pertsonak eskaera bat egingo dute azaroan, xede unibertsitatea, jakintza diziplina eta proposatutako lan egitasmoa adierazita.

19.- Deialdi honi buruzko informazioa.

UPV/EHUK deialdi honetan egindako urratsak argitaratuko ditu, honako webgune honetan:

<http://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/erasmus-herrialde-kideak>

I. eranskina.- Mobility Agreement for Teaching (IRAKASKUNTZA)

II. eranskina- Mobility Agreement for Training (PRESTAKUNTZA)

III. eranskina- Dokumentu eredua, interesdunaren homologoak lan egitasmoaren proposamena onar dezan xede unibertsitatean